

### Jabetza-eskubidea

Gauzak erabiltzeko eskubidea da. Legeak dakarrenak bakarrik mugatzen du eskubide hori. Jabetza pribatua eta jabetza kolektiboa aurkitzen ditugu herrietan historian zehar. Gizarteen eraketaz arduratu diren filosofo marxistek jabetza-eskubidea aztertu dute eta jabetza \*produktzio-harremanetatik banatzea ezinezkoa dela uste dute.

### Jacobi, Friedrich Heinrich

Düsseldorf-en 1743an jaio eta München-en 1819an hildako filosofo alemana. Goethe eta Lessing-en laguna. Spinoza-ren filosofiak ateismora daramala pentsatzen zuen eta horregatik kritikatu zuen, sentimenduak eta fedea aldeztuz. Erromantikoak kutsatu zituen. Obrak: Ueber die Lehre des Spinoza, 1785; Von göttlichen Dingen, 1811.

### Jaensch, Erich Rudolf

Brelavia-n 1883an jaio eta 1940an hildako filosofo alemana, Marburg-eko Psikologia-ko Institutuko zuzendari izana. Eidetika eta tipologia karakteriologikoa aztertu zituen. Obra: Die Eidetik und die typologische Forschungsmethode in ihrer Bedeutung für die allgemeine Psychologie und die Psychophysiologie der menschlichen Persönlichkeit, 1925 (espainieraz itz.: Eidética y exploración tipológica, 1937).

### Jainismoa

India-ko filosofoi eskola tradizionaletakoa bat da: heterodoxoa (\*nastika). Indiar tradizio oso zaharretik dator Jainismoa, baina talde edo sistema erlijiozko-filosofiazkoa eraikitzea Mahariva-ri egozten zaio (K.a. VI.).

Erlijio-talde jainita txikia da (gutxi gorabehera 3.000.000 lagun), baina Jainismoaren ideia etikoez eta epistemologikoez eragin handia ukan dute indiar gizarteetan.

Atea da Jainismoa: ez du izaki absoluturik ezagutzen. Mundua betierekoa da; baina denbora mugatua izanik, munduak bere izate-aro (yuga) ziklikoak ditu: aro bakoitzak, berriz, bi garai ditu: gorako eboluzioa eta beherako degradazioa, munduaren energiak deusezteraino. Deuseztapenaren ondoren berriro aro berria hasten da.

Era berean anima banakakoa ere betierekoa da, \*berraragiztapen-kateatik eta gorputz-forma guztietatik askatu eta betekuntzazko egoerara iristean ere ez du bere banakakotasuna galduko.

Jainismoaren arabera, izaki guztien sailkapenaren azken-azkenean bitango zatiketa metafisikoa gertatzen da, bizidunen edo ani-

madunen eta bizigabeen edo animagabeen (materiazkoen) artean. Materia eta animak betiereko printzipioak dira, eta bateraezinak. Hala ere, bi printzipioak \*karma-ren bitartez lotuta daude bizidunetan. Hauen askapena, materia haizatzean datza.

Prozesu hau, ordea, berraragiztapen-katearen bide luzean gertatzen da, eta bereziki ariketa aszetikoen eta bizikera herstua-ren bitartez lortzen da.

Jainismoak filosofia mailan gehienbat epistemologi arazoak landu ditu. Izakien sailkapen-zaletasun handia adierazten du. Nolabaiteko erlatibismoa eta eszeptizismoa erakusten ditu: munduari buruzko edozein baieztapen hurbilkorra da, ez erabatekoa, errealtatea bera ez baita erabat mugatua. Horregatik, ez ezagutzak eta ez egia erlijiozkoak ez dute \*dogmatismorik onartzen: egia ikuspegi batetik da egia, baina beste ikuspegi batetik bestelakoa izango da. Inolako baieztapenak ezin du inguratu errealtate osoa.

Etika aldetik, Jainismoak oinarritzko printzipio nagusitzat dauka biziarekiko begirunea, bizia sakratua bait da; horregatik, lehen agindua bortxarik eza da (\*ahimsa).

Gandhi-ren pentsamendu eta jokabidearen lehen iturria Jainismoa izan zen, batez ere ahimsa edo bortxarik ezari zegokionez.

Paulo Agirrebaltzategi

### Jainkoa

1. "Jainko" izena beti filosofiaren aurretik emanda dago giza esperientziaren edukin bezala. Hala ere, Jainkoa filosofi gai garrantzizkoa eta oinarritzko kontzeptua da.

Beraz, Jainkoaren ideia erlijiosoa eta filosofikoa (eta arrunta ere bai) bereizi egin behar dira. Baina bai giza pertsonalitatean eta bai Mendebaldeko historian zehar elkar josirik eta elkarrekiko tirabiran aurkitzen ditugunez gero, bata bestearen erreferentzian argitu beste aukerarik ez dugu. Hortaz, Jainkoaren esperientzia filosofiaren historian kontzeptu bidez nola landua izan den aztertuko dugu.

2. Aristotele-k, antzinako jainkoen errepresentazioak gogoratzean, espresabide mitologikoz jantzitako egiaren aurreste gisa hartzen ditu. Filosofiak, ostera, irudimenaren ordez \*logos-a erabiltzen du gauza bera aztertzeko eta, honela, \*teologia filosofiako iri sorrera eman dio. Platon-engan, "teologia" izen berriarekin bat, politeismo garaitik gaurdaino emandako pausoaren kontzientzia zorrotza dager: "jainko" ideia bilakabidean behin-betiko halako mugaren bat gainditu izanarena, alegia.